

ARRASATE

P R E S S


ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko abenduaren 12a / 654. zenbakia



SANTAMASETAKO KROSA DOMEKAN

Santamasetako Koadrilen Arteko Krosean
Enrike Kabiketa zena omenduko dute

ORAIN ETA HEMEN: SAHARAKO ERREFUXIATUEN ALDE/6 • KULTURA: TXALAPARTA ELKARTEAK, 20 URTE/14



Portaloi
Optika

**ZURE OPTIKA
BERRIA
ARRASATEN**

**ERDIKO KALE 10
TEL.: 943 79 65 56**



OSKAR VITORIA

Jokin Zaitegi plaza 9 - Tel.: 943 77 18 12- ARRASATE



NAUTICA
WATCHES



GUESS



KALEINKESTA/ Zein da horrenbeste auto istripu egoteko arrazoie? Zein da soluziñue?



MERINO FERNANDEZ
Langillie

Neuk pentsetan dot arrazoi printzipala belozidatie dala, abixada haundixen jueten gare-eta. Hala eta be, errepede asko ez dauz bape ondo. Kulpie ezin jako beti gidarizari bota.




ESPERANZA SANPEDRO
Etxekoandrie

Neuk uste dot inguruko bidiek ez dauzela bape ondo; hobetu egin biherko leukie, estuegixek die-eta. Horrekin batera esango neuke gaztieki automobilien azkarregi ibiltzen diela.



MIREN OLAZABAL
Langillie

Autobide azkarrak egin biherrien, daukugun errepediek konpondu egin biherko leukie, asko egoera txarrien dauz-eta. Gaiñera, sekulako inddarra daukien automobiliekin gabitz.



AITOR PEREZ
Ikaslie

Neure ustez, askotan gano-rabakerixiatatik izeten die auto istripu asko. Konduziduten goiezenien arreta haundixae jarri biherko geuke. Gaiñera, abixadie, errepedien egoerie...



ARANTZA IRIZAR
Etxekoandrie


Neuk pentsetan dot belozidadiatik auto istripu asko izeten diela, jentie abixada haundixen ibiltzen da-eta. Leku askotan errepediek ez dauz bape ondo, eta horrek be ez dau lagunketan.



URTZI ASKASIBAR
Langillie

Automobiliek gero eta indar haundixae daukie, eta interes ekonomikuek dauz horren atzien. Abixada haundixen juenda des-piste bat eukiz gero gatxa da automobile kontroletie.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK APURKETAK EGIN DITUZTE Irakurle batek haserre dagoela aditzera eman digu, joan den asteburuan ezezagun batzuek Saiolaneko Zerrajerako eraikina- egoitza azpian dagoen lokal bateko kristalak apurtu zituztelako. Irakurleak oso txarto deritzo ezezagun horiek asteburu gauetan apurketak egiten ibiltzeari, eta euren aisialdian ekintza positiboak egin ditzatela aholkatu gura die.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /6

KIROLA /10

KULTURA /14

Erakuslehi lehiaketa

Datorren astean Santamas erakuslehi lehiaketako irabazleen izenak emango ditu Udalak.

Arku Tiroketa Txapelketa

Domekan Arku Tiroketa Txapelketako bigarren jardunaldia jokatu da Musakolan.

Gabonetako liburu gida

Arrasateko eta Oñatiko liburutegiek Gabonetako liburu gida kaleratu dute, proposamenekin.

ASTEKODATUA

295

LAGUNEK ERABAKI ZUTEN ORGANOAK EMATEA

Joan den eguaztenean, ATCO-REK Eroski kanpoan mahaia ipini zuen. Izugarriko marka egin zuten. Ibarreko 295 lagunek organo emaile izatea erabaki zuten. Eskerrak eman dizkiete guztiei.

BESTE EKESANA



Hurbiltasuna jatorrizkoa duten kanalen arteko elkarlana bultzatu behar da; programa soilen

trukaketak, parrilla-ereduak, publizitate kontratazioa, azpiegitura, ezagutza eta instituzioen aurreko interlokuzioa. Digitalizazioari buruzko legedia eta merkaturia bete gura izate horri erantzuten ez bazaio, laster gertuko kateek ez dute lekurik izango (...) ETB eta hurbileko telebistak osagarriak dira. Euskararen normalkuntzaren bidean eta informazio egitura propioa sortzeko lanetan biak behar dira. Gainera, ikus-entzuleak biak nahi ditu (...) Katalunian, telebista autonomikoak lokalen esku jarri ditu dokumentalak, filmak eta marrazki bidadunak (...) Tokiko telebistek TV3entzako korrespontsalia lana egiten dute.

EDORTA ARANA
'ASTEON' /03-12-05

HERRITARREN BERBAK/ Oihan Zubizarreta



Korapiloak

Korapiloak trabatzen zaizkit eztarrian, barrenak nahasten dizkidaten kontu eta pertsona ugari bizi dira nire inguruan... eta idazten jarri naiz.

Dagoeneko urte bat iragan da honako txoko honetatik lehenbiziko aldiz zuri zuzendu nintzaizula, irakurle. Urte luzea iragan da eta urteak hainbat gairi heldu eta hautsak arrotzeko parada eman dit, zuri zerbait esateko. Gogoetan nabil idatzi dudana, idazteke utzi dudana, honetaz eta besteaz esan didatenaz... Eta zalantzan nabil oraingoan idatziko dudana. Kezkatzen nau azkenaldian herrian bertan gertatzen ari denak, aspaldian ematen ari den kontua bada ere...

Buruan bueltaka daukat gure artean ez dauden hainbat herritar, gure arteki bortizki eraman dituzten herritarak. Gogoan hartu gura nituzke txoko honetan Saioa (aupa Txoronpia!), Kasko, Igor, Kanto

eta giltzaperatuta, urrun, bahituta dauden arrasatearrak, besarkada eta muxu potoloak haiei.

Eta buruan bueltaka dabilkit ere, herritarrek jaiaren bueltan biltzen dituen Santamas jaiaren inguruan gertatu den arazoa. Esan gura nieke, eta bide batez eskabidea luzatu,

"Buruan bueltaka dabilkit Santamas jaiaren inguruan gertatu den arazoa. Ez al dakizue jaiak herriarenak direla?"

arazo hau sortu duten arduradun lotsagabe horiei; ez al dakizue ba jaiak herriarenak direla? Jai herrikoiek berriz ere gure artean beren lekua izan dezaten, animuak eta elkartasun osoa luzatu gura

nioke jai herrikoien antolakuntzan eta herri honen biziberritzean lan eskerga egin duen Komisiñuari. Zuei, eskerrik asko.

Hemen idazteak laguntzen dit korapilo hauek goxatzen... ea korapiloak azkar batean askatzen diren. Gabonak datoz eta guztiok itsutuko gara opariekin, jaiarekin, jan eta edanarekin... zaindu zaitez irakurle, ez utzi korapiloak handitu daitezen.

Arrasate
PRESS

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantza Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martinez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain
Ane Berebizar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ASTEABIHITZETAN

Gripearean aurkako txertatze kanpaina

Aurtengo gripearean aurkako kanpainaren gaineko oso balorazio positiboa egin dute. Iazkoekin konparatuz gero, gora egin dute datuok. Txerto hori 65 urtetik gorako herritarrei eta adin hori izan barik gaixotasun kronikoren bat dutenei zuzendutakoa zen. Hain zuzen ere, Osakidetzaren helburua zen bi talde horien %65i ipintzea txertoa, eta Arrasaten %82ri ipintzea lortu dute. Beraz, erraz gaintu dute ezarritako helburua. Kanpaina irailaren 15ean hasi zen eta urriaren 31n bukatzekoa zen. Hala ere, beste bi astez luzatu zuten epea.

Fagor Etxetresna Elektrikoak, diru-iturri bila

Fagor Etxetresna Elektrikoak kooperatiba diru-iturri bila dabil. Hain zuzen ere, mendeko ekarpen finantzarioak atera gura ditu, orain dela urte batzuk Eroskik egin zuen moduan. Sasoi hartan, 60 milioi euroko jaulkipena egin zuen Eroskik, hedatze plana aurrera ateratzeko. Gero, handitu egin zuen jaulkipena, 90 milioi eurora. Modu horretan, eta legeak burtsan kotizatzen uzten ez dionez, beste aukera ekonomiko bat erabil dezakete. Hain zuzen ere, bide hori proposatu behar zieten langileei atzo, eguena. Eta haiek erabaki beharko dute aurrera egin edo ez. Gero, baietz erabakiz gero, Merkatuko Espainiako Batzorde Nazionalari horren berri eman beharko diote.

Ikasle onenei saria

Urtero ikasle onenak saritzen ditu Kutxak. Hain justu ere, Euskal Herriko unibertsitatean ikasten duten ikasleei ematen diete saria. Aurten, Gipuzkoako 34 ikaslek jaso dute saria, lizentziadunek eta diplomadunek. Tartean, Mondragon Unibertsitateko hainbat ikasle ere badira: Mikel Mendikute, Maite Albes, Nagore Alberdi eta Miren Igartua. Lizentziadunei 1.350 euro emango dizkiete eta diplomadunei 1.050 euro.



Arizmendi eta Euskararen Eguna

Arizmendi ikastolak Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu zuen joan den eguaztenean. *Euskara jalgi hadi mundura* leloa erabili dute aurten. Besteak beste, teknologia berriak erabiliz euskararen aldeko jolasak eta jarduerak antolatu zituzten Arizmendiko gune guztietan.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Arrasateko eredia, pikutara!

Orain dela hilabete batzuk, Enrike Letona Askatzeko Bilgunea sortu zutenean, hainbat hedabidetan zera esan zuten: Arrasate eredu zela, aspaldiko partez herriko alderdi politiko gehienek eta herriko hainbat arlotan lan egiten duten lagunek helburu jakin baterako bat egin zutelako. Are gehiago, ezker-abertzalearen legez kanporatzearen

ondoren gertatu zenez, horri balio handiagoa eman zioten. Euskal Herriko hainbat lekutatik ilusioz hartu zuten hemengo ekimena, eta txalotu egin zuten.

Zoritxarrez, Arrasate ez da beti eredu. Aste honetan jakin dugu Santamas Komisiñue eta Arrasateko alkatetzak haserretu egin direla. Alkatetzak Komisiñuari baldintza zehatzak ipini gura izan

dizkio, baina azken horrek ez ditu onartu gura izan.

Santamas jaiak herriko jai garrantzitsuenetarikoak dira, bai behintzat parte-hartzearen eta giroaren aldetik ikusita. Santamas Komisiñuak jai hori berreskuratu eta hogeita sei urtetan antolatu izan du. Pena da halako egoera gertatzea.

Arazo hori eta beste asko konpontzeko malgutasuna derrigorrezkoa da. Hori barik, ezer gutxi egin daiteke. Txarto gabiltza horrela!

ASTEKOIRUDIA



XABI URZELAI

FERIXALEKUKO AITONEK KALE AGERRALDIA EGIN ZUTEN BILOBEKIN

Joan den egubakoitzean, Ferixalekuko 30 bat aitona kale agerraldia egin zuten euren bilobekin Seber Altuben. Askok dira herrian bilobak zaintzen dituzten aitona eta askotan bat egin dute pasean. Hala baten, horietako bik argazkia ateratzea erabaki zuten. Beste aitona batzuei gonbita egin zieten, eta

azkenean mordoia batu ziren: 30etik gora, hain zuzen ere. Ordu laurden bat egin zuten Seber Altuben, eta GOITBko kamerek, ARRASATE PRESSEk eta beste hedabide batzuek horren testigantza jaso genuen. Zernolako zerbitzua egiten dieten gurasoei aitona eta amona horiek! //B.

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TEL. 943 711762

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Saharar errefuxiatuei laguntzeko jakiak eta dirua batzeko kanpaina abiarazi dute

UBANE MADERA

Bigarren urtez, saharar errefuxiatuei laguntzeko kanpaina abiaraziko du Arrasateko Udalak herriko erakunde, ikastetxe eta denda handiekin elkarlanean. Elikagaiak eta dirua batzea da helburua. Abenduaren 15etik 19ra arte batuko dituzte jakiak.

Lekaleak, arroza, pasta, azukrea, olio eta atuna latetan (oliotan, ez eskabetxean ezta kristalezko ontzietan ere). Horixe batu gura dute Tindoufeko kanpalekuetara bidaltzeko (Aljeriara). Han bizi diren saharar errefuxiatuen egoera larria apur bat arintzea da asmoa. Hala, dagoeneko aurkeztu dute kanpaina herriko ikastetxeetan; eta Eroski eta BM zentro komertzialekin hitzartu dute bi saltokietan elikagaiak batzeko lekuak izango direla; horrez gain, saltokiek ekarpen propioa egingo dute.

Hortaz, laguntza eman gura dutenek honako lekuetan utzi ditzakete elikagaiak: Arrasateko ikastetxe guztietan, Hiper Eroskin, BMn eta Udaletxeko sarrean. Datorren astean egin ahal da hori, astelehenetik (abenduaren



ARRASATE PRESS

Otsailaren erdira arte dirua eman ahal izango da, kamioiak erosteko.

15etik) egubakoitzera arte (abenduaren 19a).

Gero, batutako guztia biltegi batean gordeko du Udalak, Tindoufera bidaltzeko zain.

DIRUA ERE BEHAR DUTE

Eta iaz egin zuten moduan, batutako guztia kamioien bitartez

eramango dute Aljeriaraino. Baina, kamioiak erosi egin behar dira. Beraz, hori egiteko dirua behar dute.

Elikagaiak otsailaren erdialdean bidaliko dituzte. Hala, ordu arte dirua eman ahal izango da. Honako bi kontuak zabaldu dituzte horretarako: Euskadiko

Kutxan: 3035 0060.45 060004746 9; eta Kutxan: 2101 0200440011305190. Antolatzaileek nabarmendu gura dute elikagaiak batzea bezain garrantzitsua dela dirua batzea. Izan ere, kamioi barik ez dago elikagaiak hara helarazterik; eta hala gertatzen bada, batutako elikagaiak alperrik batuko dituzte.

Hori dela eta, partikularrek ematen duten diruaz gain, elkar-teei, enpresei eta bestelakoei ere eskatuko diete dirulaguntza.

GOBERNUZ KANPOKO ELKARTEAK

Euskadiko Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren Lagunen Elkartek eskatu dio laguntza Arrasateko Udalari. Ikastetxez, saltoki handiez eta zenbait erakundez gain, honako gobernuz kanpoko erakundeekin egingo du kanpaina Udalak: Komite Internazionalistak, Harreman, Mugarik Gabeko Ingeniaritza, Activos/as Por Un Mundo Solidario; SERSO-San Viator, Caritas eta Gurasoak.

Informazio gehiago gura duenak honako telefonora dei dezake: 943 79 09 00 (Jone Beitialarriingotia); edo honako posta elektronikoa erabil dezake: prebentzio@arrasate-mondragon.net.

LABUR

Babes ofizialeko alokairuzko etxebizitzaren zozketa

Eusko Jaurlaritzak Arrasateko Udalari jakinarazi dioenez, datorren astelehenean, hilak 15, alokairuzko babes ofizialeko etxebizitzak zozketatuko dituzte. 12:00etan egingo dute zozketa, Uarkape pilotalekuan. Interes duen edozein joan daiteke ikustera. Edozelan ere, etxebizitzaren zozketan parte hartzeko izena emanda dutenei abisua bidaliko diete. Pertsona bakoitzak zenbaki bat izango du, eta zenbaki horren arabera egingo dute zozketa. Emandako datuen arabera, kupo orokorrean 93 lagunek emanda dute izena; 35 urte-ik beherakoen taldean 210 lagunek eta ezintasunak dituztenen artean, lau lagunek, hain zuzen ere.

Guztira, 95 etxebizitza zozketatuko dituzte. Zerrajerakoak. Baina, etxe horiek oraindik egin barik daude. Esan digutenez, proiektua ere ez dute egin. Hortaz, badirudi oraindik luze joko duela.

Uarkapeko zozketara Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Saileko ordezkariak etorriko dira; tartean, Javier Madrazo.

Datorren astean banatuko dituzte erakusleihen lehiaketako sariak


U.M.

Santamasetako urteroko erakusleihen lehiaketa abiarazi du Udalak. Parte hartu gura duen merkataria datorren egunen (abenduaren 18) baino lehen eman behar du izena Udaleko Kultura batzordean. Abenduaren 19an banatuko dituzte sariak.

Dagoeneko herriko ia saltoki guztien erakusleihen apaindu dituzte Gabonetara begira. Beraz egingo dako lana aprobetxatu eta erakusleihen lehiaketan parte har dezake gura duenak. Hori egingo gero, parte-hartzaileak abenduaren 19tik urtarrilaren 6ra arte bere horretan utzi beharko du apaindutako erakusleihen. Eta, jakina, abenduaren 19rako (datorren egubakoitza) erakusleihen apainketa bukatuta izan beharko du.

KONTUAN HARTUKO DUTENA

Honako irizpideak kontuan hartuko ditu epaimahaiak erakusleihen apainketa baloratzeko orduan: irudimena, orijinaltasuna, publikitate-mezuaren baliozotasuna, erakusleihen itxuraren kalitatea eta apainketak Santamasekin eta Gabonekin



ARTXIBOA

Hiru sari banatuko dituzte; bat Ibai Arte merkataria elkarrekin emango du.


duen zerikusia. Erakusleihen saltokiko ohiko produktuak erakutsi beharko dituzte saltzaileek.

Parte hartu gura duten merkataria guztien izenak hartu eta gero, hurrengo egunean, abenduaren 19an jakinaraziko ditu Udalak irabazleen izenak. Hiru izango dira. Lehenengo irabazleari plaka eta 180 euro emango dizkiote; bigarrenari 150 euro eta hirugarrenari 120 euro. Azken sari hori Ibai Arte merkataria

elkarrekin emango du. Edozelan ere, esan beharra dago epaimahaiak sariren bat hutsik uzteko aukera daukala.

MOTA GUZTIETAKO IRABAZLEAK

Iaz honako saltokiek irabazi zuten lehiaketa: Onandia Gozotegiak, Maza Jantzi Dendak eta J. Ramon Otamendi Harategiak. Ikusten denez, hiru mota desberdinetako saltokiak saritu zituzten.



Konstituzioaren kontrako ekimenak

Zapatuan, Konstituzioaren eguna zela-eta, haren kontrako ekimenak egin zituzten zenbait herritarrek ezker abertzaleak deituta. Goizean Arbolapetako murala egiten ibili ziren; bitartean, Estatuaren jabetzako zenbait erakunderen eraikinetan protesta kartelak ipini zituzten: Correosen, epaitegian eta ONCEn saltokian, esaterako. Horren ostean, kalejira egin zuten, Konstituzioa irudikatzen zuen kartoizko liburu erraldoi batekin. Seber Altuben bukatu zuten kalejira, eta haren ostean su eman zituzten liburu erraldoiari.

ELKARRIZKETA

NORMA VAZQUEZ/FEMINISTA

“Emakumearen maitasuna sakrifizioan oinarritzearen ideia ezabatu egin behar da”

UBANE MADERA

Norma Vazquez joan den astean egon zen Arrasaten; hitzaldia egin zuen. Bilbon bizi den mexikar feminista da, baita psikologoa ere. Bikote heterosexualetan islatzen den feminitatearen eta maskulinitatearen gainean egin zuen berba; besteak beste, gaur egungo egoera aztertu zuen:

Zure ustez, gaur egun zein bikote eredu da nagusi?


Oraindik ere honako ereduak da nagusi: bikotea izate bat dela, non feminitatea eta maskulinitatea elkarren osagarri diren. Hori hala izateko kontrakotasuna adierazten duten estereotipoak ezartzen dira: pertsona indartsu bat dagoen lekuan pertsona ahul bat dagoelako izaten da... Hala, bikote bat ez da indarrak, gaitasunak... batzen dituzten bi pertsonaren artean osatutako bizi-proiektua, baizik eta elkarren

osagarri diren kontrakotasunen batuketa.

Bikote gazteek edo hezkuntza maila altua duten bikoteek bestelako ideiak dituzte (bikotea bi lagunen arteko batuketa dela ikustea...), baina gutxiengoa dira.

Eta ideia horren ondorioz zer gertatzen da?

Bikoteak oso txarto antolatuta daudela. Adibidez, lanak banatzeko orduan, oraindik ere emakumeak kexu dira gizonak ez ditela laguntzarik ematen. Hala, emakumeek onartzen dute etxeko lanak eurek egin beharrekoak direla. Horrek arazoak sortzen ditu. Bestalde, funtzioak banatzeko orduan, emakumeak arduratzen dira oraindik ere emozioen, sentimenduen arloarekin: bikotearen etorkizunarengatik kezka, bikotearen gogo-aldarteak zelakoa den interpretatzearen lana emakumeena da... Azken batean, harremanaren *temperatura neurtzeak* emakumearen lana izaten segitzen du. Sentimenduen




arloan zerbait gaizki badoa, beti emakumearengan ezartzen dute ardura. Hortik arazo mordoa sortzen dira: txikietatik hasi eta tratu txarretaraino iritsi arte.

Proposatuko zenuke irtenbideren bat?

Bat baino gehiago. Lehenik eta behin ezabatu behar dugun ideia zera da: emakumeen ardura dela sentimenduen arloa, eta emakumeen ardura dela gizonak heztea arlo horretan; zera ere ezabatu behar dugu: bikotekidea norberaren osagarria dela. Ideia horrek guztiak hezkuntzaren eta kulturaren bidetik bultzatu beharko lirakeke. Eta batez ere ezabatu behar den ideia zera da: emakumearen maitasuna nor bere sakrifizioan eta nor bere buruari uko egitean oinarritzen dela; halakoa dela emakume egokia. Hau da, emakumeek euren eskubideak, desioak, beharrak... errebinkatzen badituzte berekoiak direla eta horregatik ez dutela bikotekiderik aurkitzen.

U.M.



SIKOL



Olarte 31 - ARRASATE - Tel.: 943 79 89 32

Gabon zoriotsuak!

HAURREK GIROTU ZITUZTEN BEDOÑAKO JAIAK

Jai gehientsuenetan moduan, Bedoñan ere haurrek girotu zuten kale giroa. Joan den asteburuan ospatu zituzten Santa Eulalia jaiak, eta Bedoñako auzotarrek ekitaldiz betetako egitaraua antolatu zuten. Zapatuan, Doke Txapelketa eta luntxa izan ziren Loramendi elkartearen. Domeka goizean, umeez Txatxilipurdirekin jolasteko aukera izan zuten, eta

arratsaldean euskal jolasak egin zituzten. Ilunkeran mus eta briska txapelketak izan ziren, eta txapelketa horietan esku hartzeko baldintzaren bat edo beste bete behar zen: auzotarra izan, auzoko bati arrimatuta egon edo Loramendi elkartearen bazkide izatea. Zortzi bikote izan ziren esku Mus Txapelketan. Gauean, berriz, auzo afari ederra egin zuten Errastiko jatetxean.



SAN NIKOLAS EGUNeko BOLO JENDETSUA ERDIKO PLAZAN

Zapatuan, urtero egin ohi duten moduan, San Nikolas eguneko bola egin zuten Erdiko Plazan. Erdiko Plazara joan aurretik, baina, gaztetxoak etxez etxe ibili ziren gozoki eta diru eske. Eguerdi partean, Arrasateko gaztetxoak eta gurasoak udaletxe aurrean zeuden, balkoitik botako zutena hartzeko prest. Erdiko Plaza lepo bete zen, eta guztiak ere nahikoa lan izan zuten poltsa gozokiz betetzen.

AKORDEOI LEHIAKETAN KIRILL CHTYBINE NAGUSI

Aurten ere Arrasateko Nazioarteko Akordeoi Lehiaketan errusiar bat izan da onena: Kirill Chtybine. Domekan izan zen lehiaketaren azken gala, eta sari banaketa egin zuten. Irabazleak trofeoa eta 3.600 euro eskuratu zituen. Bigarren saritua Milos Milivojevis serbiarra izan zen, eta hirugarren saritua Niko Kumpuvaara finlandiarra. Azken urteotan Arrasateko Nazioarteko Akordeoi Lehiaketak ospe handia hartu

du, eta horri esker aurten ere punta-puntako parte-hartzaileak egon dira. Era berean, Gipuzkoako Lehiaketako senior mailan Naiara de la Puente Vadillok irabazi du. Naiarak trofeoa eta 600 euroko sariaz gain, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin batera jotzeko aukera izango du. Orkestraren Lehiaketa ere egin zuten asteburuan. Gorengo mailan Sabadellgo orkestra izan zen onena; maila ertainean Hernaniko orkestra nagusitu zen.



Aurten, lasterketa hasiera Erdiko Plazan egongo da, baita helmuga ere.

ARRASATE PRESS

ATLETISMOA

Domekan korrituko da Santamas krosa, Enrike Kabiketaren oroimenez

Aurten, kirolari federatuek lasai asko hartu ahal izango dute esku lasterketan

XABIER URZELAI

Domeka eguerdian korrituko da 26. Koadrila Arteko Santamas Krosa. Antolatzaileek, gainera, Enrike Kabiketa zenaren oroimenez antolatu dute lasterketa. Koadrilen arteko krosa 12:30ean hasiko da. Lehenago, baina, gaztetxoenen lasterketak izango dira.

Domeka eguerdian lasterketa ikusgarriaz gozatu gura duenak ez du urrun joan behar izango. Santamas jaiak berotzen hasteko, aurten ere koadrilen arteko krosak ez du kalerik egingo. Gainera, edizio berezia izango da, Enrike Kabiketaren oroimenez egingo dute eta lasterketa.

Koadrilen arteko krosa 12:30ean hasiko da, Erdiko Plazan. Ibilbideari dagokionez, antolatzaileek ez dute aldaketarik egin. Lasterkariak Erdiko Plazatik Portaloiara jaitsi eta Maalako kalea zeharkatu eta gero, Otalora Lizenziaduna kaletik jarraituko dute

korrika. Arbolapetatik pasatu eta gero, Muxibarko biribilerraino joan beharko dute, eta berriz ere Arbolapetara itzuli. Handik Portaloiara eta berriro Maala aldera. Ibilbide hori sei aldiz egin beharko dute, eta azken itzulian, Portaloiara iritsitakoan, Erdiko Plazarako bidea hartu beharko dute, han egongo da eta helmuga.

FEDERATUEK PARTE HARTZEKO AUKERA
Joan den urtera arte, koadrila bakoitzeko federatutako kirolari batek bakarrik har zezakeen esku. Aurten, baina, federatutako kirolariak ez dute Santama-

setako herri krosean parte hartzeko mugarik izango.

Lasterketaren irabazleek sariak izango dituzte, baita koadrila azkarrenek ere. Horretarako, koadrila bakoitzeko lehenengo bost sailkatuak hartuko dira kontutan. Koadrila azkarrenak bildots bat jasoko du, bigarrenak lau untxi eta hirugarrenak bost oilasko. Emakume talde azkarrenak ere izango du saria.

Nagusien lasterketa hasi baino lehen, baina, gaztetxoek lasterketak izango dira. Lasterketa horiek 11:00etan hasiko dira, Erdiko Plazan baita ere.

Federatutako kirolariak ez dute Santamas krosean parte hartzeko mugarik izango

Nagusien lasterketa hasi aurretik, 11:00etan, gaztetxoek lasterketak izango dira

ZALDIBARARETOFUTBOLA

PARTIDUAK

ABENDUAK 13, ZAPATUA. EPAILEAK

09:50: Billy & The... - Aloña Tab.	AC Surcos
11:00: AC Surcos - Errasti Krist.	Aloña Tab.
12:00: You Know - Saukelu Scre.	Errasti K.
13:00: Betraye - AT Celaya.	You Know
14:00: Goma-2 - Speed Boys.	AT Celaya
15:00: Etixerat - Tomahawk.	Goma-2
16:00: Dream Team - Whiskeria.	Etixerat
17:00: Iritz Tab. - KPPC.	Dream Team
18:00: El Ekipo A - Dribling.	KPPC

ABENDUAK 14, DOMEKA

10:50: Alpar-Estutu - Abokajarro.	Fuxion
12:00: Fuxion - Lasagabaster.	Alpargat-Est.
13:00: Bikain Akad - AT Celaya.	Lasagabas.

Deskantsua: Rayo Aldeano.

SAILKAPENA

A MULTZOA	P	J
1. Rayo Aldeano	8	5
2. Iritz Taberna	8	5
3. Alpgat - Estutu!!!	7	4
4. Abokajarro	6	5
5. Aloña Taberna	6	5
6. You Know	6	5
7. Saukelu Scream	6	4
8. AT Celaya	5	4
9. Betraye	4	4
10. Bikain Akademia	2	4
11. Koka Juniors	0	5
12. Billy & The Cowboys	0	4
13. KPPC	0	4

B MULTZOA	P	J
1. AC Surcos	8	4
2. Dribling	8	5
3. Goma-2	7	5
4. Lasagabaster	7	5
5. Etixerat	6	4
6. Dream Team	5	5
7. Tomahawk	5	5
8. Errasti Kristaldegia	4	5
9. Speed Boys	4	5
10. El Ekipo A	2	5
11. Fuxion	2	5
12. Whiskeria	0	5



KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

ATLETISMOA

Domekan, Koadrila Arteko 26. Santamas Krosa, Enrike Kabiketaren oroimenez.

11:00etan, 13 eta 14 urte bitartekoak.
11:10ean, 12 urtekoak (1991n jaiotakoak).
11:20ean, 11 urtekoak (1992an jaiotakoak).
11:30ean, 10 urtekoak (1993an jaiotakoak).
11:40ean, 9 urtekoak (1994an jaiotakoak).
11:50ean, 8 urtekoak (1995ean jaiotakoak).
12:00etan, 7 urtekoak (1996an jaiotakoak).

12:30ean, koadrila arteko lasterketa.

FUTBOLA

Mondra - Urola
Preferentea, Zapatuan, 15:30. Atxabalpen.

ESKUBALOA

Arrasate - Groseko
Big.Territ. Domekan, 12:00. Iturripen.

Gatz Museoa - Leizaran

Gazteak. Domekan, 10:30. Iturripen.

SASKIBALOA

Ointxe Arrasate - Jarrileros

Seniorrak. Zapatuan, 18:00. Iturripen.

Arrasate - Cafes Aitona

Juniorrak. Zapatuan, 16:00. Iturripen.

ERRUGBIA

Atletico SS - Arrasate

Gazteak. Zapatuan, 11:00. Donostian.

Hernani - Arrasate

Kadeteak. Domekan, 10:30. Hernanin.

ARKU TIROKETA

Arku Tiroketako Txapelketako bigarren jardunaldia.

Domekan, 11:30. Musakolako kiroldegian.

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak osagaiak

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

EGUZKIGRAF
inprimategia

Industrialdea F-0-4
Tfnoa.: 791844
Faxa: 792941

ARETXABAETA

Irabazten hasi baina partidua galdu: Beriok eraman zituen hiru puntuak

XABIER URZELAI

Mondrak 1-2 galdu zuen zapatuan Berioeren kontra. Arrasateko mutilak aurreratu ziren markagailuan, baina bigarren zatian Beriok buelta eman zion partiduari. Oraingo asteburuan ere etxean jokatu du Mondrak; Urolaren kontra, hain zuzen.

Zapatuan Atxabalpen jokaturako partiduan epaileak gura baino lan handiagoa izan zuen, eta guztietan ez zuen asmatu. Gainera, Mondraren kontrako faltak errazago adierazi zituen. Jokaldi eztabaidagarri baten nabarmen egin zuen kale; azkeneko minutuetan Muruari egindako penaltian. Ez zuen penalti hori ikusi, eta Mondrak partidua berdintzeko aukera ezin hobeak galdu zuen. Horrek ez du gura esan Mondrak partidua epailearen erruz galdu zuenik, ezta gutxiago ere.

Norgehiagokako lehenengo zatian Mondrak Beriok baino aukera hobeak izan zituen; baina ez ziren gol aukera garbiak izan, areatik kanpo egindako jaurtiketak izan ziren-eta. Horrelako jaurtiketa baten egin zuen Muruak bat eta hutsekoa. Baloia arearen ezker aldean hartu, jaitsi, izkin egin,



OLAIA MONDRAGON

Beriok sari handiegia jaso zuen zapatuan Atxabalpen.

burua altxatu, atezaina aurreratuta ikusi, jaurti eta eskuadratik barrura. Behin eta berriro ikusteko moduko gola (1-0).

Bigarren zatian gauzak aldrebestu egin ziren; gol aukera garbirik izan gabe Beriok bi gol egin zituen. Lehenengo golean, arriskurik ez zuen baloia hartzerakoan huts egin zuen Calvo atezainak, eta Beriok banakoa egin zuen. Zorigaitzoko jokaldia izan zen, baina atezainek ere horrelakoak

egiteko eskubidea dute. Hamar minutu geroago, Laspiurrek penaltia egin zuen; eta, jokaldi horretan epaileak asmatu egin zuen. Berioko Saizek ez zuen barkatu (1-2). Markagailua kontrat, Mondrak gora egin zuen. Azken minutuetan bi jokaldi eztabaidagarri izan ziren: Jokin Pavori lurretik garbi kendu zion defentsak baloia, baina Muruari penaltia egin zioten; epaileak ikusi ez zuen penaltia.

ARKU TIROA

Domekan Arku Tiroketa Txapelketako bigarren jardunaldia jokatu dute kiroldegian

Joan den astean hasi zen Eibarren VII. Arku Tiroketa Txapelketa, eta oraingo domekan Arrasaten jokatu da bigarren jardunaldia. Arkulariek Musakolako kiroldegian jardungo dute, 11:30ean.

Euskadiko hainbat talde egoteaz gain, Arrasateko Arkulari Taldekoak ere txapelketan esku hartzen dabilta. Domekan jokatu duten bigarren jardunaldiak ordubete iraungo du, eta herriko arkulariak ikusteko aukera egongo da.

MENDIKO ESKIA

Besaide Mendi Elkarteak mendiko eski irteera antolatu du abenduaren 20rako eta 21erako

Besaide Mendi Elkarteak abenduaren 20ko eta 21eko asteburuan estreinatuko du eski denboraldia. Lehenengo irteera, baina, mendiko eskia egiteko izango da. Panticosara joango dira, eta irteera mendiko eskia egiten ez dakiten eskiatzaileei dago zuzenduta, has-tapen ikastaroa egingo dute-eta. Izenematea abenduaren 15ean eta 16an egin ahal izango da, Besaideren egoitzan.

ESKUBALOA

AGR Arrasate eta Hegialde Auto taldeen arteko partidua bertan behera geratu zen

AGR Arrasate eta Hegialde Auto taldeen arteko partidua bertan behera utzi zuen epaileak domekan. Legazpiarrak epaileen erabakiekin gustura ez, eta tira-bira handia izan zen Iturripen.

Ordura arte legazpiarrek hobeto jokatu zuten. AGRk partidu txarra egin zuen; bai erasoan eta baita defentsan ere. Legazpikoez kontrolpean zuten partidua, lau goleko errenta ere izan zuten-eta. Norgehiagoka amaitzeko bi minuturen faltan, baina, Hegialdekoek burua galdu zuten epaileak hartutako erabakiekin. Entrenatzailea eta hiru jokalariek egotzi zituen epaileak, eta AGRk bi goleko aldea lortu zuenean, epaileak bertan behera utzi zuen partidua.

MULTIOPTICAS



2004

Zorionak

Juan Carlos Guerra 1 • ARRASATE • © 943 79 29 95

MULTIOPTICAS

MultiOpticas-en ideiak opari ezberdin bat egiteko

Altimetroa

PSP 120 €
Gabonetan 85 €

Podometroa

PSP 31 €
Gabonetan 27 €

Termometro digitala

PSP 50 €

Gabonetan 42 €



OAKLEY Artilezko txanoa



Gabonetan 26 €



"Funkyfruit" kutxatilkak

PSP 12 €
Gabonetan 9 €

Estazio digitala proiektziozko erlojuarekin

PSP 55 €
Gabonetan 48 €

Prismatikoak 10x32

PSP 35 €
Gabonetan 28 €

Txalaparta elkarte gastronomikoak 25. urteurreneko ospakizunak antolatu ditu

IKER BARANDIARAN

Asteburuan, Txalaparta elkarte gastronomikoak 25 urte beteko ditu. Urteurrena behar den moduan ospatzeko, bazkideendako liburu bat kaleratu dute eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

1976ko udaberrian, herriko bi koadrilak, *Sola eta Bufaloak*, Iturripen egindako batzar inprobisatu baten, elkarte gastronomikoa zabaltea erabaki zuten. Taldean lagun gutxiegi ziren eta bazkide kopuru handiagoa behar zuten, txikiteoan eta gastronomian sona handikoak ziren beste koadrila batzuekin jarri ziren harremanetan: *Mutilzaharra*, *Ministro*, *Rufinos* eta beste koadrila batzuekin, hain zuzen ere.

Beharrezkoa zuten bazkide kopurua lortuta, 1977an eratu zuten lehenengo Zuzendaritza batzordea. Egoitza Zuloaga kalean jartzeko saiakera egin zuten, baina azkenean Otalora kaleko 6. zenbakian egoitza dotorea zabalteko aukera izan zuten. Eta hala egin zuten. Hutsik zegoen lokala atontzeko lana Javier Egiara bazkide eta arkitekto teknikoari esleitu zioten. Elkarte berria 1978ko Santamasa baino lehen inauguratu zuten.

EKITALDI MORDOA ANTOLATU DITUZTE
Gauzak horrela, 25 urteotan hainbat eta hainbat bazkari, afari, askari eta ospakizun egin dituzte Txalaparta elkartearen. Orain, urteurrena ospatzeko, egitaraua antolatu dute. Gaur, egubakoitza, hasiko da: 18:30ean, Arrasate Musika-kaleko Big-Band taldeak kontzertua egingo du elkartearen. 19:15ean, *Txalaparta elkarte 25. urteurrena* liburua aurkeztuko dute eta bazkideei banatuko diete. Horren ostean, 19:30ean, luntxa egingo dute eta Goikobaluko Ochote taldeak abestu egingo du.

Bihar, zapatua, ekitaldi gehiago antolatu dituzte: 12:30ean, hildako bazkideen aldeko meza entzungo dute San Frantzisko elizan. 13:00etan, mezatik irten ostean, txikiteoa egingo dute gaitarien musikak alaituta. 14:30ean, ospa-



GORKA MORRAS

Elkartearen historiaren gaineko liburu dotorea kaleratu dute.

Gaur eta bihar, egubakoitza eta zapatua, ospatuko dute elkartearen 25. urteurrena

Elkartearen azken 25 urteotako historia batzen duen liburua bazkideei banatuko diete

Elkartearen sorrera, pasarte bitxiak eta argazki mordoa batu dituzte liburu horretan

kizunak ondo bukatzeko, bazkaria egingo dute elkartearen. Bazkide guztiek eta euren senideek bazkalduko dute.

HISTORIA, LIBURU BATEN BATUTA
Hori guztia antolatzeaz gain, Txalaparta batzarrak elkartearen gaineko liburua prestatu du. Liburua euskaraz eta gazteleraz egin dute eta bertan elkartearen historia laburbildu dute. Liburuan azaltzen da nortzuek eta zein baldintzatan sortu zuten elkarte,

baita egoitza aurkitzeko egin behar izan zituzten lanak ere. Hasierako bazkideen zerrenda argitaratu dute, baita hasieran bete beharreko agiri guztiak ere.

Elkarteko kideek bizi izandako hainbat pasarte bitxi papereira eraman dituzte, eta emakume bazkideei aipamen berezia egin diete. Izan ere, Txalaparta da emakumeak bazkide moduan onartzen dituen Arrasateko elkarte bakarrenetako bat. Elkarte sortu zutenean ezin zitekeen, baina

80ko hamarkadan aldatu egin zituzten estatutuak.

Horrez gain, Txalapartak 25 urteotan egin dituen ekimenetako asko batzen dituen argazki sorta batu dute: elkarteko hainbat lagun ezagun, sukaldariak, jaiak, afariak, San Felipe Apostolen ekitaldiak, errugbilarien ospakizunak, karta joko eta doke lehiaketak, Zaldibarko Futbito Txapelketa, mendi irteerak, Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa eta beste asko. Liburu oso txukuna egin dute.

LABUR



Gabonetako gida eta pare bat ekitaldi, liburutegien eskutik

Arrasateko eta Oñatiko liburutegiek elkarlanean Gabonetako liburu-gida kaleratu dute. Orain arte, ibarreko liburutegiek udan *Biblioporrak* kaleratu dituzte. Erabiltzaileek Gabonetako oporretarako ere premia zegoela esan zieten, eta hala egin dute.

Liburu-gida horren bi mila ale kaleratu dituzte; mila herri bakoitzerako. Gidan agertzen diren liburu guztiak berriak dira. Gida hiru sailetan banatuta dago: 0 urtetik aurrerakoa; 6 urtetik aurrerakoa; 9 urtetik aurrerakoa; eta 12 urtetik aurrerakoa. Sail bakoitzean zortzi-bederatzi liburu aipatu dituzte, eta euskarazko eta gaztelerazko liburu gomendagarriak aditzera eman dituzte. Gida horiek eskuragarri izango dira liburutegietan, liburu dendatan eta ikastetxeetan.

Horrez gain, irakurtzeko zaletasunarekin lotutako bi ekitaldi antolatu dituzte. Bata, gaur, egubakoitza, Santa Marinako liburutegian egingo dute. 17:00etan, Jose Mari Carrere ipuin kontalaria *Izena duen guztia da* ipuin kontaketa saioa eskainiko du. 12 urtetik gorakoei zuzenduta dago.

Bestalde, datorren eguean, abenduaren 18an, Juan Carlos Alonso haur-psykologoak *Irakurri hazteko* izenburua duen berbaldia egingo du. Monterrongo liburutegian izango da, 18:30ean. Berbaldi hori 0 eta 7 urte bitarteko umeak dituzten gurasoei edo irakasle batzuei zuzenduta dago, hain zuzen ere.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)

Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Señalizazioak

Lonak

Erliebendun hizkiak

BEHEKODENDATIK

Nagore Eizagaetxebarria

N&N SOL ESTETIKA ETXIE

XABIER URZELAI

Nagorek eta bere bazkidek oin dala urte eta erdi zabaldu euen Ferrerias kalien estetika etxie. Nagore, baiñe, oin dala zortzi urte hasi zan estetika kontuetan lanien. Oin arte bere jaioterriren ibilli da lanien, Durangon. Oin, barriz, Kanpanzarko beste aldera etortie tokau jako. Nagorekin egin dogu berba.

Txikittan ze gure zeuen izen?
Txiki-txikittatik argi neuken gaur egun egitten doten lana egin gure neuela.

Drogak legalizauko zeuke?
Batzuk bai.
Eta prostituziñue?
Baitta be; batez be egoera hobien lan egin daixien.

Pelikula bat? Liburu bat?
Musika talde bat?
Stephen Kingen edozein / Abentura liburuek gustetan jat / Luis Miguel gustetan jat.

Ze egon da aurten sobran?
Irakeko hilddako danak.
Datorren urterako hobetu biherreko zerbait?
Horrenbeste gauza dauz! Politikuek horrenbestetan sartzen daue hankie...

Nora juengo zitzake gustora?
Etxera, alabiekin egotera.
Etxeko lan gorrotagarrirena?
Etxeko lan danak.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeinekin?
Hobe dot holakorik ez egin!!!
Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?
Jentiekintan tratuen egitten jaktie.

Ze irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?
Arrasateko etxebizitzaren prezioek behera egin dauela.
Ze eskeinketan dozu N&N Sol estetika etxien?
Batetik, solarium zerbitzue; babes-neurri eta arau danak errespetate. Bestetik, estetika lanak egitten dittugu; estresan kontrako tratamintuek... Gaiñera, laserrakin egindako depilaziñue be mar-



“Gizonezkuek be depiletan die; hori ez da moda kontue. Gustora egotie da inportantiena”

txan jarri gure dogu; medikuek egindde, baiñe.

N&N Sol: sasoi honetan, baiñe, eguzki gutxi.

Hori be egixe da, bai. Badau jentie urte dana moreno egotie gustetan jakona. Eguzkixe poliki-poliki hartzie da ona, ez udan dana batera hartu gure zertie.

Moreno jarteko, eskietan juetie aukera ona...

Baiñe eskietan ez dozu bikini-rik ibilliko! Gaiñera, betaurrekuen markie geraketan da.

Eskietan jueten dan jentien-dako eukiko dozu gomendixorik.

Bai, eguzkixekin kontuz ibiltteko. Kremie ibiltteko, eta protekziño altukue, gaiñera. Negu par-

“Solarium zerbitzuez aparte, estetika lanak be egitten dittugu: depilaziñue, manikurie...”

teko eguzkixek uste baiño gehixau joten dau; eta edurran reflejue peligrusue da. Jentiek sekulako aberixak egitten dittu.

Depilaziñue be egitten doze; depilautako gizona, ziklista?

Eeeeeez! Lehen bai, baiñe oin gizonezkuek be depiletan die.

Uledun gizonezkuek dauz, baiñe, modan!

Hori ez da moda kontue. Uliekin gustora bazauz, aurrera. Eta ule barik gustora bazauz be ondo. Gustora egotie da kontue.

Azken baten, barrittute urteten dozu hamendik.

Barrittute, barrittute... Jentiek gustora urteten dau hemendik, eta hori da geure helburue.

NIREBIDAIAHURA/ Jone Morras

Ekuador / 2003ko uztailetik urrira arte

J oan den astean Jonek Ekuadorren egindako lanaren gainean egin genuen berba. Hiru hilabete egin zituen han, eta hiru proiektutan hartu zuen parte. Horrelako lekuetan lan egitea oso aberasgarria izaten da, baita gogorra ere: “Behin, tratu txarrak jasaten zituzten emakumeekin lanean nenbilela, aizkorakada bat jaso berri zuen emakumea etorri zitzaidan; odoletan zegoen, erabat izututa. Benda jartzen nion bitartean emakumea lasaitzen ahalegindu nintzen. Momentu horretan erre-akzionatu baino ez nuen egin, ez nintzen begi bistan nuenaz jabetzen; laguntzea zen kontua. Gero, lasaiago, gertatutakoaren hausnarketa egin nuen. Egia esan, horrelakoetan konturatzen gara lan hori egiteko gauza garen edo ez”.



Ekuadorrek dituen arazoaren gainean berba egiterakoan, Jonek dio egiturazko arazoak direla: “Faktore asko daude dituzten arazoak edukitzeko: ekonomikoki pobreak badira ere, ezin da esan Ekuador lurralde pobrea denik, lehengai askoko lurraldea da-eta. Kontua da lehengai horiek ez dituztela eurak aprobetxatzen, kanpotarren mende daude; petrolioa da adibide argiena. Ikustekoa da petrolio enpresek eragiten dituzten kalteak: hodiak oihaneko edozein lekutan jarri, errekek kutsatu, animaliak urrundü... Azken batean, oihaneko oreka apurtzen dute, eta herritar xumeek ez dute inongo ordainik jasotzen.

“Ekuador ez da lurralde pobrea, lehengaiak dituzte-eta”

“Lehengaiak, baina, kanpotarrek ustiatzen dituzte”

Horrez gain, alkoholismoa ere arazo handia da”.

Gauza horien guztien gainetik Jonek zera azpimarratu gura du: “Harritu nauen gauzetako bat da gizakiok egoera berrietara moldatzeko daukagun gaitasuna”. Hori bai, Jonek argi dauka bizi izandakoa bi artikulutan azaltzea ezinezkoa dela: “Egoera hori ulertzeko bizi egin behar da”.

XABIER URZELAI



Shushufindi-n, petrolio hodiak oihana zeharkatzen.

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE


Monte taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

ZAHARREN ETXETIK



GORKA MORRAS

Uribarriko erretiratuek adi-adi entzun zituzten hizlariaren azalpenak.

Bizkarreko gaitzak berbagai izan zituzten Uribarriko elkarteetan

IKER BARANDIARAN

Joan den egunean, Hirugarren Adineko Institutu Komunitarioko kide batek berbalda egin zuen Uribarriko erretiratuen elkarteetan. Honakoan aukeratu zuten gaia bizkarreko gaitzen gainekoa izan zen. Lagun asko batu ziren elkarteetan, adituaren azalpenak entzuteko asmoz.

Adituen esanetan, gizateriaren %80k bizkarreko gaitzen bat izango dute euren bizitzan. 65 urte baino gehiago dituzten lagunen kasuan, ehunekoa handiagoa da; %90ekoa, hain zuzen ere. Are gehiago, horien artean emakumeak dira gaitz hori gehien izaten dutenak. Hala ere, azpimarratu beharra dago bizkarreko gaitzak aipatzerakoan, bizkarrezurreko hiru atal bereiztu behar ditugula: lepoaldea, sorbalda-gerrikoa eta gerri-orinoa.

BIZKARRA ONDO ZAINDU GAZTETATIK
Adituen esanetan, bizkarra oso gaztetatik zaindu behar da. Horretarako, gorputz-jarrerak oso

garrantzitsuak dira. Modu berean, lepoaldea da gorputz-jarrera desegokien eta tentsioen ispilu.

Bizkarreko gaitzak sendatzeko tratamendu aproposena honako hau da: min handien izaten denean atsedean hartzea. Edozelaan ere, ez da komeni hiruzpalau egun baino gehiago atsedean hartzea.

Bizkarreko mina, ispilua

Adituek askotan esan ohi dute bizkarreko minak gure bizimoduaren ispilu direla. Atsedendian eta lanean izaten ditugun gorputz-jarrerak eragin handia dute horretan. Baita gehiegizko esfortzuak egiteak ere.

Horrez gain, askotan esan ohi da gaur egungo lepoaldeko gaitzak gizateriak bizi dituen gehiegizko tentsioaren ispilu direla.

Horrez gain, komeni da egunean birritan mina dagoen lekuan bero lehorra ematea. Manta elektriko batekin egin daiteke, 10-15 minutuko iraupenarekin. Horrez guztiorrez gain, batzuek muskululasaiztaileak hartzen dituzte, betiere, ohera joan aurretik, logura handia eragiten dute-eta. Ezin izango da halakorik hartu, medikuak preskribitzen ez badu. Horiekin batera, adituek diote egunero luzatze-eraketak egitea oso gomendagarria dela.

BIZKARREKO GAITZARI AURRE HARTU

Adituen esanetan, bizkarreko gaitzari lehenbailehen aurre egin behar zaio. Horretarako, gorputz-jarrerak zaintzea oso garrantzitsua da, lanean zein bestela ez da gehiegizko esfortzurik egin behar; luzatze-eraketak sarritan egin beharko dira; kirola egitea gomendatzen dute, batez ere, igeriketa, paseatzea edo bizikletan ibiltzea.

Eta horiez guztiez gainera, ahalik eta likido gehien edatea gomendatzen dute. Baita pisua zaintzea ere, hori zaintzeak gaitzak ekiditen ditu-eta.


LABUR

Martxoko azkeneko asteburuan Toki Argi elkarteak lagunak Italiara joango dira

Martxoaren 24tik 31ra bitartean Toki Argi erretiratuen elkarteak lagunak Italiara joango dira. Bi autobus antolatuta dituzte, eta oraindik hamasei lagunendako lekua dago. Horregatik, interesatuta dagoen edozein erretiraturik dei egin diote. Bikoteek lagun bakoitzeko 570 euro ordaindu beharko dituzte. Gizabanakoek, ostera, 730 euro. Interesatuak jo lehenbailehen Toki Argi elkartera.

Gaur, egubakoitza, eta bihar hainbat ekitaldi antolatuta dituzte Toki Argi elkarteetan

Gaur, egubakoitza, Santa Luzia eguna ospatzeko Toki Argi erretiratuen elkarteak lagunak txokolate-jana eta dantzaldia antolatuta dituzte. 19:00etan izango da, eta Iñaki Quintanillak kontzertua egingo du. Bihar, zapatua, Erriberrira (Olite) txangoa egingo dute. Egun-pasa egingo dute eta Erriberrin bertan bazkalduko dute. Interesatuak bost euro ordaindu beharko dituzte.



Abaroako karta jokoen sari banaketa

Azaroaren bukaeran, Abaroa elkarteetan mahai-jokoen txapelketa jokatu zuten. Lagun asko batu ziren eta dagoeneko bada-kigu zeintzuk izan diren irabazleak: musean Jose Maria Lopez eta Roman Lopez nagusitu ziren; tutean, Jeronimo Sandobal eta Felix Juez; briskan, Eusebia Martin eta Angelita Muñoz; eta billarrean, Juan Lekunberri. Martitzenean, abenduaren 16an, irabazleei eta irabazleordeei sariak emango dizkiete eta parte-hartzaile guztiek luntxa egingo dute, 18:30ean. Bestalde, egubakoitzean txistorra-jana egingo dute, 18:30ean. /I.B.

ad Ihabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

ZUBIZARRETA
LANTEGIAK

Gipuzkoa etorbidea 22

ARRASATE

Tel.: 943 79 15 65



KONTRATAK

IRYROK S.L.

ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis - Apdo. 246

Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14

ARRASATE



ARRASATE
Irati Gutierrez
Abenduaren 18an, 5 urte.
Zorionak! Gurasoen eta
amamaren partetik.



ARRASATE
Gustavo Sanchez
Abenduaren 9an, 28 urte.
Zorionak! Gurasoen eta
anai-arreben partetik.



ARRASATE
Maddi Godoy
Abenduaren 17an, urte-
betetzea. Zorionak! Etxe-
koak.




ARRASATE
Xabier Martinez
Abenduaren 15ean, 8 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Aritz Martin
Abenduaren 13an, 4 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Markel Mangana
Abenduaren 18an, 12 urte.
Zorionak! Familiakoak eta
lagunak.



OÑATI
Julen Iriondo
Abenduaren 11n, urtebe-
tetzea. Zorionak! Lankide-
en partetik.



ARRASATE
Iñigo Gadiñanos
Abenduaren 10ean, 6 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Mikel Otxandiano
Abenduaren 11n, 28 urte.
Zorionak! Xabaten parte-
tik.



ARRASATE
Paulo Ferreira
Abenduaren 16an, 5 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Iosu Arizmendiarieta
Abenduaren 8an, 10 urte.
Zorionak, *Kovacevic!* Etxe-
koak.



ARRASATE
Andoni Galvo
Abenduaren 14an, 9 urte.
Zorionak! Izeba, Maider
eta Alazne.



ARRASATE
Jesus Mari Urrea
Abenduaren 6an, urtebe-
tetzea. Zorionak! Familia-
koen partetik.



ARRASATE
Iker Barandiaran
Abenduaren 14an, urte-
betetzea. Zorionak! Lanki-
deak.



ARRASATE
Ane Berezibar
Abenduaren 19an, urte-
betetzea. Zorionak, ama-
txo! Lankideak.



ARRASATE
Arane Ibañez
Abenduaren 3an, 6 urte.
Zorionak! Etxekoak.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitzazuzen ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

EZETZASMATU



Zer dabilta eraikitzen argazkiko langileak?
Arrastoa: gaur egun, gehienetan, ahatez inguratuta egoten da leku hori.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Cuetara askotariko gailetak
700g-ko kaxa

2,45€ 408 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

FELIX AIASTUIrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Felix!

Galderen erantzun zuzena:

Jose Mari Ormaetxea, Alfonso Gorroñoigoitia eta Jesus Larrañaga.

ARRASATEKO HISTORIA

Pablo Uranga kalearen gaineko aipamen batzuk

MONDRAGON SUS CALLES', J. LETONA

San Frantzisko kaletik sartzen da Pablo Uranga kalera, eta Monterroneraino iristen da kale hori. Uranga margolari buhamearengatik ipini zioten izena. Zergatik? Bada, margolari hark harreman estua zuelako Arrasaterekin. Are gehiago, ezkondu Arrasaten ezkondu zen. Izan liteke Arrasaterekin zeukan harreman hori margolariaren anaia batengatik edukitzea. Izan ere, Fernando Maria Uranga San Frantziskoko Mesedeetakoen ospitale-komentuko kaperaua izan zen, 1898. eta 1906. urteen artean.

Margolariaren gainean gogoratzen diren bitxikerien artean, batek esaten du zelan Arrasatera iritsi zen aurreneko aldian, zalgurditik jaitsi eta Pedro Biteri ikusi zuen Pablo Urangak; haren hazpegiak begiztatu zituen eta ospitalean Biteriren erretratua egin zuen. Portaloiako arkuak zintzilikatu zuten gero.

San Juan parrokiako presbiterioan ere utzi zituen aztarnak margolari gasteiztarrak. San Juan Bautista lepogabetu zutenekoaren eta

*Pablo Urangak
Biteriren erretratua
egin zuen
Arrasatera etorri
eta berehala*

*Pablo Urangaren
anaia
Mesedeetakoen
ospitale-komentuko
kaperaua izan zen*

San Juan Bautista jaio zenekoaren freskoak egin zituen. Azken horretan Legearren Harlauzak daude irudikatuta, baina hamaika agindu agertzen dira. Ez dakigu zer adierazi gura zuen margolariak, baina apaizek behin baino gehiagotan aipatzen dute hamaikagarren agindua: *Ez molestatu*; batez ere jendea berandu heltzen denean erlijio kontuetara.



GORKA MORRAS

Pablo Uranga kaleari Pablo Uranga margolariarengatik ipini zioten izena; izan ere, hark lotura estua izan zuen Arrasaterekin.

Arrasaterekin lotura duen beste margolan bat *Erromeria* izenekoa da. Gaur egun Donostiako San Telmo museoan dago. Eta inspiratuta dago San Jose eguna ospatzeko (maiatzean)

San Josepen bertan egiten duten erromerian. Eta, horiez gain, beste lan asko ere utzi zituen Pablo Urangak; tartean, Juanito Azkoaga lagunari egindako erretratua eta *Errotak*

izeneko beste bat.

Ikusten denez, Pablo Urangak denbora luzea pasatu zuen Arrasaten, besteak beste, Pablo Urtubi margolari-lagunarekin.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko abenduaren 12a / 89. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Aurtengo azkeneko osoko bilkura datorren astean

U.M.

Ezustekorik ezean, urteko azkeneko osoko bilkura egingo du udalbatzarrak datorren eguaztenean. Besteak beste, udal tasak eta prezioak aztertuko dituzte.

Ohikoa den moduan, 18:00etan hasiko dute batzarra zinegotziek. Gai-zerrendan denetarik izango dute aztertzeko. Esaterako, udal tasen (zergen) eta prezioen urteroko azterketa egingo dute, zerga eta tasa horiek eguneratzeko. Horrez gainera, euskara biziberritzeko planari onespina eman edo ez aztertu beharko dute. Eusko Jaurlaritzak abiarazitako ekimena da euskara biziberritzeko plana. Beste urte batzuetan ere sinatu izan du Udalak.

Horrekin batera, familia ugarien ordezkariak egindako eskaera ere aztertu beharko dute zinegotziek. Hain zuzen ere, ondasun higiezinaren gaineko zergetan %90erainoko hobaria eskatzen dute haiek.

AZKOAGAKO ABADETxea

Bestalde, Azkoagako abadetxea berbagai izango dute. Arkitekto eta geologo banak eraikin haren egoeraren gaineko txostena egin



Askotariko gaiak izango ditu aztergai udalbatzarrak.

dute. Hain zuzen ere, horren berri emango diote udalbatzarrari.

Azkoagatik Zabolara salto egingo dugu. Izan ere, Diputazioak atzera bota du Aramaioko Hiri Antolamenduko Arauen aldaketa puntuala Zabolari dagokionez. Ondorioz, gaia berriro

aztertu beharko dute osoko bilkuran.

Bukatzeko, Ipiztekoarriaga mendian dauden zuhaitzak botatzeko lanen adjudikazioa landuko dute, eta kontu-hartzailearen egoera aztertuko dute. Laster kontratua bukatuko zaio-eta.

HERRITARREN HITZA / Manex Agirre • Ikaslea

Laurel eta Hardy

Kasualitateetan sinesten ez zuen hilkor arrazional horietako bat nintzen, aurreko ostiral batean Otxandiora bertso-afari batera kantuan joan arte. Testu-puska honekin hasteko, eskerririk asko eta benetan zorionak hain hurbil eta era berean urrun dugun herri bizkaitarrentzat. Eta jarraitzeko, konparaketa joko bat jarriko dizuet martxan, irakurleok:

a) Otxandioak mila biztanle inguru ditu. Herri txikia baina bizitzaz betea da (eta ez da gauza berria). Gazte asanblada indartsu bat du, gaztetxea martxan dago, eta igartzen da proiektu serio bat dutela esku

artean, eta oso batuta daudela. Kultur eskaintza oparoa dute, eta asteburutan mugimendu handia egoten da.

b) Aramaio (ai, Aramaio). Herri txikia BAINA hilkutxa batean sartua da. Gaztetxerik ez dago, gazte asanbladarik eratzeko inondiko borondaterik ez dago, mugimendurik ere ez (beti geldituko zaigu Anboto, baina...), siesta permanente batean dagoen herria, oesteko herri-fantasma,



"Herri txikia BAINA hilkutxa batean sartua da Aramaio"

sheriffa falta duena eta komeni ez zaiona, gainera.

Bi herri, biak biztanleria kopuru antzeratsukoak, baina bide paraleloki desberdinak daramatzatenak. Kasualitateetan sinetsi gabe, nork uler dezake hau? Arrasate ondo ondoan egonik, bertarako joera

dagoela, auzo ugari egonik biztanleria sakabanatuta dagoela...komentatu izan didate. Niretzat ez dira arrazoi nahikoa seigarren zentzumena-

LABUR

Bañera elkartekoek etxean jokatuko dituzte asteburuko areto futboleko partiduak

Joan den asteburuan, azkenean, Bañerako mutilek ez zuten partidurik jokatu. Datorren asteburuan, berriz, etxean jokatzeko tokia zaie bi taldeei. Hala, mutilek 10:00etan dute partidua, Jesus Obreroren kontra; eta neskek 11:00etan jokatuko dute, Francisco de Vitoriaren kontra. Mutilei dagokienez, urtea bukatu baino lehen jokatuko dute aurrekoan bertan behera geratu zitzaizen partidua.

Gabonetan zinema-saioak egiten segituko dute, domeketan, kultura etxean

Oraingo domekan, *Simbad, la Leyenda de los Siete Mares* izeneko filma emango dute, betiko moduan, 17:00etan, kultura etxean. Bestalde, Gabonetako oporrak etorri arren, jakinarazi digute domeka arratsaldetan filmak ematen segituko dutela. Horrez gainera, gogoratu 20an, 27an eta urtarrilaren 2an ere zinema-saioak egongo direla, ilunkeran.

Kultura etxean dauden itoginak konpontzen ahaleginduko dira berriro

Bati baino gehiagori sortzen diote burukomina kultura etxean dauden itoginek. Izan ere, behin baino gehiagotan ahalegindu dira konpontzen (3-4 bider), baina, Hirigintza Sailekoek jakinarazi digutenez, azkeneko euriekin berriro sartu da ura. Horren aurrean, oraingo astean berriro etorri dira langileak itoginak konpontzen ahalegintzera. Ea, bada, oraingoan lortzen duten.

Bañerako monumentua urte hasieran ipiniko dutela jakinarazi digute

Miguel S. Etxeberria Garmendia eskulturagilearen *Korapiloak* eskultura urtarrilean ipiniko dutela jakinarazi digute. Eskulturagileak berak erabaki du non ipini: Bañera parkeko erreka bazterean. Aramaioko olen eta uraren arteko harremana islatu gura du.

LABUR

Gabonetarako menua prestatuko dute Zubiondon

Gabonak datozela-eta, Txirritola Euskara Elkarteak antolatuta, datorren egunean, hilak 18, Gabonetarako menua prestatuko dute Zubiondo jatetxean. Garagartzako Arteaga jatetxeko Igor Ezpeleta sukaldaria ibiliko da sukaldean lanean; aurreratu digutenez, arrainen bat eta postreren bat prestatzeko asmoa dauka; gutia goxo-goxo, jakina. Nahi duena joan daiteke ikustera eta ikastera, gero Gabonetarako ideiak hartzeko. Sarrera doakoa da. 18:00etan hasiko dira lanean.

BOTEPRONTOAN/ Jose Luis Zalakain · Margolaria

“Margotzea zaletasuna baino gehiago da; izan ere, egunero hiru ordu inguru pasatzen ditut margotzen”

Gaur, barikua, zabalduko dute Sastiñan Jose Luis Zalakain margo erakusketak. Tolosan jaio zen, Arrasaten bizi izan zen urte luzean eta Aramaion ezkondu zen. Harrezkero han bizi da, Ibargoian. Margolaria da. Eta egindako lanen erakusketa ipini du Sastiñan:


Margolaria, denbora librean ala lanbidez?

Margotzea gustatzen zait, eta egiten dut, baina oraindik ez da posible lanbide izatea.

Noiztik margotzen duzu?

Orain dela 10 bat urtetik hona. Hasieran zeramika lantzen ibili nintzen, hiru urtez, Arrasaten; apurka-apurka margotzen bukatu nuen. Dena dela, txikitan asko margotzen nuen. **Zer ikusiko dugu Sastiñako erakusketan?**

24 margolan aukeratu ditut. Gehienak olio egindakoak, baina badaude akrilikoz egindakoak ere. 12 margolan Aramaio txokoen gainekoak dira eta beste 12en artean denetarik dago: erretratuak, natura hilak, barnealdeak... **Margotzen zein estilotakoa**



“Ehun margolan baino gehiago ditut; Sastiñan azken hiru urteotako lanak erakutsiko ditut”

zarella esango zenuke?

Hainbat fase izan ditut, baina gaur egun errealismo hutsa lantzen dut.

Autodidakta zara; bakarrik lan egiten duzu?

Bakarrik nabil, bai, baina irakasle asko izan ditut: Laskurain, Anton Juaristi eta Azkargorta bergararrak. Hasi Monterronen hasi nintzen margotzen, Amaiarekin.

Lan asko dituzu erakusteko...

Niretako margotzea zaletasuna baino gehiago da. Egunero hiru ordu inguru pasatzen ditut margotzen. Bestelako erakusketak ere egin izan ditut. 2001ean egin nuen azkena, Nafarroan; bakarka zein taldeka ipini genituen margolanak. **Guztira zenbat lan dituzu, ba?**

“Lazkano eta Azkargorta bergarar margolariak asko gustatzen zaizkit”

Ehun baino gehiago. Batzuk salduta... Sastiñan azken hiru urteotako lanak ipiniko ditut. **Hortaz, Sastiñan ere erosi ahal izango dira zure lanak...**

Bai, saltzeko daude, noski. **Aramaio margotzeko leku ona da?**

Bai. Polita da Aramaio. Leku bitxiak aurkitu ditut: iturriak, taberna... Eta oraindik auzoetan ia ez naiz ibili. Badago bai non inspiratu.

Zein da zuretako maisu eredugarria?

Velazquez gustatzen zait asko. Errealismoan, berriz, Antonio Lopez.

Eta Debagoienean?

Lazkano eta Azkargorta bergararrak gustatzen zaizkit.

Zer iruditzen zaizkizu Anboto tabernarenak moduko ekimenak antolatzea?

Neure kasuan, ez dut uste leku aproposa denik egiten ditudan lan handiak erakusteko; Sastiña ere ez da oso aproposa, baina ez dago besterik... Dena dela, nor bere lana erakusteko aukera dira. Neuk, adibidez, margolanak izan ditut ipinita Dukiena jatetxean.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal Kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zulako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
18:30	19:45	20:25
19:00	19:15	
21:00*	21:15	
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	19:15*	19:30
19:30	20:10	20:25

OHARRA: izartxoak dute orduetan eskaeraren araberako zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu behar dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

Goienkaria-k hitzordua egin nahi du zurekin ASTELEHENERO

Egubakoitzez gain, astelehenetan ere badugu

- ✓ zer esan,
- ✓ zer erakutsi,
- ✓ zer proposatu.

Zure astelehenak... **gurekin**

Goienkaria ASTELEHENERO

• Zer eskaintzen dizu Asteleheneko Goienkariak?

- Gure eskualdean asteburuan gertatutakoaren informazioa inork baino lehen eta inork baino sakonago.
- Asteazken zehar albiste izango denaren aurrerapena eta hitzorduen berri.
- Gure enpresen gaineko informazioa.
- Zure herriko kirol taldeen kronikak, emaitzak, sailkapenak...
- Ume eta gaztetxoaren Eskola Kirolaren gaineko informazioa.
- Asteburuko kirol ekitaldiekin egindako argazki-bilduma.
- Gure kirol talde nagusiak (Reala, Athletic...) Debagoienetik ikusita.
- Debagoienean antolatzen diren kultur ekitaldien kronikak.
- Zerbitzu-informazioa: asteburuan jaiotako argazkiak, zorion agurrak, eskelak, intereseko telefonoak, lan poltsa, inbiliarriak...
- Lehiaketak, denbora-pasak...

0. alea LASTER KALEAN



ERRETRATUZAHARRA

Arrasatearren partidua Iruñean

Kirrol kontuekin segituko dugu berriro ere. Baina oraingo honetan errugbia izango da gure protagonista.

Akaso ezagunak egingo zaizkizue argazkian agertzen direnatariko asko. JDMkoak ziren (Juventud Deportiva Mondragon). JDM elkarte bat zen, eta kirol talde mordoa batzen zituen bere baitan: errugbia, atletismoa... Erakunde erdi publikoa zen. Horrez gainera, Gurea zinema JDMrena zen.

Oraingo asteko argazkia errugbi taldearen partidu baten gainekoa da. Iruñean jokatu zuten egun hartan, JDM taldeak CURN taldearen kontra (Club Universitario Rugby Navarra). Gure berriemaileak gogoratzen du irabazi egin zutela partidu hura -alde handiarekin, gainera- eta egun hartan haize handia zebilela.

Nafarren kontra jokatu zuten; izan ere, sasoi hartan errugbi federazioa nafarren eta euskaldunen artean osatutakoa zen. Gaur egun ez da hala; gaur egun bananduta daude. Argazkia 1976-77 denboraldikoa da. Sasoi



hartan, Arrasateko taldea Iturripeko zelai baten entrenatzen zen, gaur egun pistak dauden lekuan.

Honako hauek agertzen dira argazkian, goian, zutik, ezkerretik hasita: Pedro Zuazubiskar, Luis Etxebarria, Txile Izurrategi, Patxi

Gorosabel, Pedro Maria Azkargorta, Lizerantzu, Diaz de Cerio, Agapito Fuentes eta Julian Gallo (entrenatzailea zen).

Behekoak honakoak dira, ezkerretik eskumara: Oses, Luis Maria Heriz, Jose Luis Untzueta, Claudio Merchan,

Iñaki Heriz, Juan Maria Arexolaleiba eta Aitor Garate.

Argazkia: ARRASATE PRESS
Informazioa: Patxi Gorosabel.
Urtea: 1976-77


NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Arrasateko Gureako gaztetxea

Arrasateko lehenengo gaztetxea Gurean egon zen. Mondragoeko gazteriarendako garai gogorak ziren haiek, eta gaztetxea bera zen horren ispilu. Garai hartan hainbat istilu izan ziren, eta orduko Udal taldeak ez zuen begi onez ikusten gaztetxea. Behin, kontzertu bat bertan behera geratu zen, herritar batzuek gaztetxeko argindarra moztu egin zuten-eta.



≈ 1989 Batzuek Udalari ematen zioten arrazoia; beste batzuek gaztetxeari. Azkenean, bertan behera geratu zen gaztetxe hura.



2003 Garai berriekin gaztetxe berria etorri zen; baina hura ere zahar geratu zen. Gaur egun, Uarkapen dago Arrasateko gaztetxea.

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE



Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behea (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak




**Aretz
Taberna**

Markole 5
943 79 14 67
ARETXABALETA

Gorka ileapaindegia peluqueria

Orduetgia:
Astelehentik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferrerias 35 - 943 77 13 78



TXINTXAUN!

Ibarreko neska-mutikoak protagonista

Goitb
Goiena Telebista

**Ikusiko
duzu!**

TXINTXAUN
Laguntzaileak:
Aquarium, Erein, Eroski Bidaiak, Yelmo Cineplex
Babeslea: **EROSKI**

Eguaztenero,
20:30ean

Aurkezlea:
Mikel Aranburu



Aldedi ■ Alonso Anaiak ■ Altuna ■ Anbotu ■ Aranzabal ■ Arrasate Zoo ■ Arregi ■ Artea ■ Bea
 ■ Bed's ■ Beinke ■ Belem ■ Ceciaga ■ Egizabal ■ Ehune ■ Elkoro Expert ■ Eya ■ Eya ■ Elorza
 ■ Eroski Bidaiak ■ Erosle ■ Etxe Lan ■ Etxe Mobiliario ■ Euskadiko Kutxa ■ Feli ■ Flash ■ Foto
 Imagen ■ Galeria 44 ■ Garagorri ■ Gili-Gili ■ Haurtxoa ■ Hemen ■ Hire ■ Ikatz ■ Itzala ■
 Izozkitegi ■ J. Uriarte- Tamayo ■ J.G. ■ Juanma ■ Kajoi ■ Kilikolo ■ Klas ■ Kutxa ■ La Caixa
 ■ Laket ■ Landaluze ■ Lasagabaster ■ Lilura ■ Lorategi ■ Lore ■ Los Vaqueros ■ Luko ■ Mabel
 ■ Marga ■ Markiegi ■ Mayte ■ Maza ■ Milar Elkoro ■ Monte ■ Muruamendiaraz ■ Nerea ■
 Oihana ■ Benetton / Onandia ■ Otamendi ■ Parlance ■ Phildar ■ Portaloiko Kioskoa ■
 Portaloiko optika ■ Sikol ■ Sugar ■ Tokion ■ Tomas ■ Totem ■ Troko ■ Txuntxurunberde ■
 Udalaiz ■ Ume ■ Uriarte Sport ■ Urrats ■ Zabaleta ■ Zarraoa ■ Zubia ■ Zubiaga ■ Zur-Lur



Gabonetan Ibai-arten
 erosita telefono
 agenda opari!